

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAU-N ONDOKO LAN POLTSA ERATZEKO DEIALDIA ETA HAUTAKETA PROZESUA ARAUTZEN DITUZTEN BALDINTZA OROKORRAK:

KARROZARIA

LEHENA.- DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da Karrozarien Lan Poltsa eratzea Donostiako Tranbia Konpainia SAUrako (aurrerantzean DTK)

Ordainsaria DTK-k berak duen Hitzarmen Kolektiboko 8,5 mailari dagokiona izango da, gehi Hitzarmen beraren 17. artikuluan jasotzen diren gehikuntzak. Lanaldia urtero ezarriko da, tailerren zerbitzurako (eguneko edo gauekoa) eta, kasuan-kasuan, guardietarako onartuko diren egutegia eta ordutegien arabera.

Osatuko den lan poltsa lehenbailehen eta atzera ezin diren behin-behineko langileen premiei erantzuteko erabiliko da, betiere salbuespenezko kasuak badira, eta beti aldi baterako kontratuen bitartez. Halere, gerta daiteke, plazaren izaeragatik eta betiere horretarako lege estaldura baldin badago, behin betiko lanpostuak estaltzeko ere izatea.

BIGARRENA.- HAUTAGAIEN BETEKIZUNAK

Deialdian onartua izateko eta, kasuan-kasuan, dagokion Hautaketa Prozesuan parte hartzeko, hautagaiak honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

Baztertzailak:

- Europar Batasuneko kide den estaturen bateko edo Espainiako Estatuarekin lan hitzarmen bat izenpetuta duen herrialderen bateko nazionalitatea izatea edo horietan lan egiteko eta bizitzeko baimena izatea.
- Lanpostuari dagozkion zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.
- Lanpostuaren berezko zereginak betetzea eragotziko dion inolako gaixotasun edo akats fisikorik ez psikikorik ez izatea.
- Zigor espediente bidez Administrazio Publikoaren zerbitzutik baztertuta ez egotea.
- **Lanbide Heziketako titulazioa, Teknikari Laguntzailearen mailan; Erdi mailako Gradua edo lanpostuarekin lotura duen titulazioa.**
- **4 urteko esperientzia egiaztatua, karrozari lanetan.**

Baztertzale ez direnak:

- "D" klaseko gidabaimena (baldintza hau lanean hasten den egunerako eduki behar da).
- Gaitasun Profesionalaren Egiatagiria edukitzea (CAP). Baldintza hau lanean hasten den egunerako eduki behar da.
- Txapa eta zuntza lantzeko eta soldadura eta pintura lanak egiteko ezagutza sendoak.
- Mekanikako ezagutza orokorrak.
- Taldean lan egiteko gai izatea.

Deialdi honen Hautaketa Prozesuan, honako hauek ere baloratuko dira:

- Euskararen ezagutza maila.
- Antzeko lanetan izandako esperientzia

HIRUGARRENA.- ONARTUA IZATEKO ESKUBIDEEN ORDAINKETA.

Deialdian onartua izateko eskubideengatik 15 euro ordainduko dira.

Ordainketa egiteko, dirua Donostiako Tranbia Konpainia SAUK KUTXABANKen duen kontuan sartu beharko da. Hona hemen kontuaren zenbakia:

ES81 2095 0611 0310 6329 4275

Eskubideen ordainketaren egiaztagirian hautagaiaren NAN zenbakia, izena eta abizenak agertu beharko dira.

Ordainketaren egiaztagirian datu horiek behar bezala agertzen ez badira, ordainketa egin gabe dagoela ulertuko da.

Ezin izango da onarpen eskubideengatik ordaindutakoa bueltatzeko eskatu Deialdiaren Hautaketa Prozesu batean ere ez, eta, gainera, bueltatu ere ez da inola ere bueltatuko.

LAUGARREN.- ONARPEN ESKABIDEAK AURKEZTEA.

Hautagaiek onarpen eskabidea Oteic Taldearen bulegoetara bidali beharko dute edo, bestela, bulegoetan bertan entregatu (Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Eraikina, 1. solairua, 20018 Donostia-San Sebastian), 9:00etatik 18:00etara. Eskabidearekin batera honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte, onartuak izateko:

- a) Onarpen Eskabidearen inprimakia eta Esperientziaren Baloraziorako inprimakia, behar bezala beteta (inprimakiak Baldintza Orokor hauen dokumentuaren bukaerako eranskinean daude, bai eta Oteic Taldearen, DTKren bulegoetan eta www.dbus.eus webgunean ere).
- b) Deialdian onartua izateko eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duen agiria, behar bezala identifikatuta, hirugarren oinarrian adierazten denaren arabera.
- c) Eskatutako Ikasketen Titulazioaren fotokopia konpultsatua. Fotokopia arrunta ere aurkeztu daiteke, baina kasu horretan dokumentu originala ere aurkeztu beharko da biak erkatzeko.
- d) Bigarren oinarrian eskatzen den esperientzia egiaztatzeko, Gizarte Segurantzak emandako egiaztagiria (Lan Bizitza) edota dagozkien enpresa ziurtagiriak.
- e) “D” klaseko gidabaimenaren fotokopia, gidabaimena edukiz gero.
- f) Gaitasun Profesionaleko Egiaztagiria (CAP), egiaztagiria edukiz gero.
- g) Euskarazko titulazio ofiziala edukiz gero, titulazio horren fotokopia konpultsatua. Fotokopia arrunta ere aurkeztu daiteke, baina kasu horretan dokumentu originala ere aurkeztu beharko da biak erkatzeko.

Behar bezala egiaztatzen ez diren hautagaitzak, hau da, beharrezko agiriekin egiaztatzen ez diren hautagaitzak Deialditik kanpo gelditu daitezke, Hautaketa Batzordearen ustez garbi dagoenean egiaztatu ezin direla.

Eskabideak aurkezteko epea 17 egun naturalekoa da, Deialdiaren iragarkia egunkarietan argitaratzen den egunetik hasita. Zehazki, 2017ko uztailaren 10etik uztailaren 26ra arte izango da (biak barne).

Oharra: Uztailaren 24 eta 25ena bulegoak itxitak egongo dira.

Adierazitako epean eta moduan aurkeztutako hautagaitzak baino ez dira onartuko eta baztertu egingo dira baldintza horiek betetzen ez dituztenak.

BOSGARRENA.- HAUTAGAIEN ONARPENA.

Onarpen eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, Hautaketa Prozesurako onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrendak argitaratuko dira, baztertuta gelditu direnak zergatik baztertu diren azalduta. Zerrendak www.dbus.eus web orrian zein Donostiako Tranbia Konpainiaren bulegoetan egongo dira ikusgai. Zerrenda hau 2017ko uztailaren 28tik aurrera argitaratuko da.

Baztertuta gelditu diren hautagaiek beharrezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak edo akats zuzenketak egin ahal izango dituzte. Horretarako 3 egun izango dituzte zerrendak argitaratzen diren egunetik hasita, egun hori barne dagoela. Erreklamazioak edo akats zuzenketa zerrendan azaltzen den moduan egingo dira.

Alegazioak Hautaketa Batzordeak ebatziko ditu, eta behin ebatzita, Hautaketa Prozesurako onartutako hautagaien behin betiko zerrenda argitaratuko du. Behin betiko zerrenda ere www.dbus.eus web orrian eta Donostiako Tranbia Konpainiaren bulegoetan argitaratuko da.

Onartu gabe jarraitzen duten hautagaiek ezin izango dute deialdiarekin jarraitu ez eta deialdiaren hautaketa prozesuekin ere.

SEIGARRENA.- HAUTAKETA PROZESUA

Hautaketa Prozesuak hainbat **Fase baztertzailer** edukiko ditu. Fase horietan honako proba hauek egingo dira: **Proba Profesionalak** (teorikoak eta praktikoak); **Proba Psikoteknikoak eta Gaitasunekoak**; **Elkarrizketa eta Análisi Pertsonala**; eta **Merezimenduen balorazioa**.

Hautaketa Batzordearen esku egongo da probak egiteko ordena zehaztea, eta bere esku egongo da, baita ere, egun berean ariketa/fase bat baino gehiago egitea.

Fase horietan zehar gehienez 100 puntu lortu ahal izango dira. Honakoak dira 100 puntu horien balorazioa eta **fase bakoitzean lortu daitezkeen gehieneko eta gutxieneko puntuazioak**:

FASEA	Lortu daitekeen gehieneko puntuazioa	Eskatzen den gutxieneko puntuazioa
1. PROBA PROFESIONALA 1.1. Proba profesional teorikoa 1.2. Proba Profesional Praktikoa Azpiguztirakoa 1 ...	20 30 50	12 21 33
2. PROBA PSIKOTEKNIKOAK ETA GAITASUNEKOAK Azpiguztirakoa 2 ...	20	12
3. ELKARRIZKETA ETA ANALISI PERTSONALA Azpiguztirakoa 3 ...	15	9
4. MEREZIMENDUEN BALORAZIOA 4.1. Euskarazko Ezagutzak 4.2. Esperientzia Profesionala Azpiguztirakoa 4 ...	5 10 15	-- -- ---
GUZTI-GUZTIRA	100	54

1. FASEA: PROBA PROFESIONALA:

- 1.1. **Proba profesional teorikoa:** Proba teoriko bat izango da, eta mekanikako eta karrozeriako ezagutza orokorrak baloratuko dira bertan. Horretarako, era askotako ariketak planteatu daitezke, test erakoak, arazoak eta garatzeko galderak.

Proba hau gainditzeko, gutxienez 12 puntu lortu beharko dira, proban gehienez lortu ahal izango diren 20 puntuak oinarri hartuta. Gutxieneko puntuazio hori edo puntuazio handiagoa lortzen duten hautagaiak hautaketa prozesuko hurrengo fasera igaro ahal izango dute.

- 1.2. **Proba profesional praktikoa:** Tailerreko proba praktikoa bat edo gehiago izango dira, eta bertan ebaluatuko dira hautagaiak karrozeriako lanetan dituen gaitasun profesionalak eta trebetasunak.

Proba gainditzeko eta Karrozarien Lan Poltsan sartzeko aukera izaten jarraitzeko, **gutxienez 21 puntu beharko dira, 30 puntutik**

Horren ondorioz, 1. Fase osoan (Proba Profesionala) lortu beharreko gutxieneko puntuazioa 33 da, guztira ebaluatutako 50 puntutik.

2. FASEA: PROBA PSIKOTEKNIKOAK ETA GAITASUNEKOAK

Hainbat proba psikotekniko eta gaitasuneko egingo dira, hautagaiek lanposturako behar diren gaitasunak eta jarrerak dituzten ala ez ikusteko.

Fase honetan 12 puntu lortu beharko dute gutxienez, guztira ebaluatutako 20 puntutik.

3. FASEA: ELKARRIZKETA ETA ANALISI PERTSONALA.

Hautagaiei elkarrizketa egingo zaie banan-banan, eta horretaz aparte banakako edota taldeko beste proba batzuk ere bai, ezagutzeko ea haien ezaugarriak bete nahi duten lanpostuaren ezaugarriekin bat datozen ala ez.

Fase honetan 9 puntu lortu beharko dute gutxienez, guztira ebaluatutako 15 puntutik.

4. FASEA: MEREZIMENDUEN BALORAZIOA

Hautaketa Batzordeak Hautaketa Prozesuan baloratzea nahi duten betekizunak aurkezteko epeak ezarriko ditu. Betekizun horiek honela egiaztatuko dira:

- **Euskararen ezagutza:** ezagutza egiaztatzeko, proba idatzia egingo dute hautaketa prozesuan zehar. Proba hori ez dute egin beharrik izango eta, gainera, baldintza honetarako ezarritako gehieneko puntuazioa lortuko dute eskabideak aurkezteko azken egunean euskararen gutxienez B1 ezagutza maila edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoaren arabera B1 maila horren pareko ezagutza maila egiaztatuta dutenek. Egiaztatutako euskara mailan oinarrituta, hauxe izango da puntuazioa:

Euskara maila	Puntuazioa
B1	5
A2	3
A1	1

Onarpen Eskaeran adierazi duten hautagaiek baino ezingo dute proba egin.

- **Esperientzia Profesionala:** Gizarte Segurantzak emandako justifikanteak edota enpresaren egiaztagiriak aurkeztuta egiaztatuko da. Baloratzeko, 3 puntu emango dira karrozari lanetan emandako urte bakoitzeko (edo urte zati bakoitzeko), eta gehieneko puntuazioa 10 puntukoa izango da.

Fase honetan gehienez 15 puntu lortu beharko dira (Euskararen ezagutzan, gehienez 5 puntu, eta Gidatze Esperientzia Profesionalean, gehienez 10 puntu).

Deialdia gainditzeko puntuaziorik txikiena 54 da, Karrozarien Lan Poltsan sartzeko ebaluatutako 100 puntutik.

Fase bakoitzerako deia hautagai guztiei batera egingo zaie. Hautaketa Batzordeak deitutako probarakoa ezarritako lekuan, egunean eta orduan agertzen ez diren hautagaiak Hautaketa Prozesutik kanpo geldituko dira behin betiko.

Probak egiteko deitutako hautagaiek NAN, pasaporte edo gidabaimenaren orijinala erakutsi beharko dute. Dokumentu horietako bat aurkeztu ezean, ezin izango dituzte probak egin.

Prozesu honetan aukera berdintasuna bermatuta egongo da (gizonezkoena zein emakumezkoena).

ZAPIGARRENA.- INFORMAZIOA ETA JAKINARAZPENAK.

Deialdiaren eta Hautaketa Prozesuen garapenarekin lotura duen informazio guztia jakinarazpenerako honako bide ofizial hauetan argitaratuko da;

- Web orria: www.dbus.eus/beste-zerbitzu-batzuk/pertsonalaren-aukeraketa/
- Donostiako Tranbia Konpainiako iragarki taula (Fernando Sasiain, 7. Donostia-San Sebastian).

ZORTZIGARRENA.- ALEGAZIOAK

Alegazioak edota akatsen zuzenketak Hautaketa Batzordeari zuzendu behar zaizkio unean-unean adierazten den epean eta moduan.

Erreklamazioak aurkezteko epeak agortuta, kasuan kasuko erabakiak behin betiko bihurtuko dira, eta horren ondoren ezin izango da haien aurka egin.

Erreklamazio guztiak Hautaketa Batzordeak ebatziko ditu, eta ebatzitakoa Hautaketa Prozesuaren fase bakoitzari dagozkion behin betiko zerrendetan geldituko da islatuta.

BEDERATZIGARRENA.- HAUTAKETA BATZORDEA.

Hautaketa Batzordearen osaera Administrazio Kontseiluak finkatutakoa izango da.

Hautaketa Batzordeak Hautaketa Prozesua objektiboa izan dadila zainduko du. Halaber ahalmena dauka hautaketa prozesuetan sortzen diren zalantzak argitzeko eta Deialdia arau hauen arabera ondo joan dadila bermatzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, eta, hori dela eta, oinarri hauetan aurreikusita ez dauden kasuetan erabili behar diren irizpideak ezarriko ditu.

Hautaketa Batzordeak egiaztatu ahal izango du hautagaiek Hautaketa Prozesuan zehar aurkeztutako dokumentazioa eta emandako informazioa egiazkoa dela, eta, hautagairen batek informazio edota dokumentu faltsuak aurkezten baditu, hautagai hori deialditik kanpo utzi ahal izango du automatikoki.

Hautaketa Batzordeak aholkulari adituak izan ditzake egoki irizitako probak aurrera eramateko.

HAMARGARRENA.- LANEAN HASTEAN. LAN POLTSA ERATZEA ETA KUDEATZEA.

Hautaketa Prozesua bukatuta, Hautaketa Batzordeak hautagai bakoitzaren azken kalifikazioa argitaratuko du www.dbus.eus web gunean eta Donostiako Tranbia Konpainiaren iragarki taulan. Hautaketa Prozesuaren fase bakoitzean lortutako kalifikazio partzialen batura izango da. Azken kalifikazio horrek Lan Poltsako hurrenkera zehaztuko du.

Gai diren hautagaiek Lan Poltsa osatuko dute, eta horrek eskubidea emango die lehenbailehen bete behar diren eta atzeratu ezin diren behin-behineko langile premiei erantzuteko, betiere salbuespenezko kasuak badira, eta beti aldi baterako kontratuen bitartez. Halere, gerta daiteke, plazaren izaeragatik eta betiere horretarako lege estaldura baldin badago, behin betiko lanpostuak estaltzeko ere izatea.

Lan poltsan dauden hautagaietako bati lanean hasteko deitzen badiote, une horretan azterketa medikoa egin beharko du egiaztatzeko ez daukala ez gaixotasunik ez akats fisikorik bete beharko duen lanpostuaren berezko funtzioak egitea eragotziko dionik Horretarako proba hauek egingo dizkiote, besteak beste: odol eta gernu analisiak, bihotzeko eta biriketako miaketa, miaketa abdominala, bizkar hezuraren miaketa, miaketa neurologikoa, ikusmenaren kontrola, entzumenaren miaketa eta anamnesia.

Halere, DTK-k bere esku uzten du beste proba gehigarri batzuk eskatzeko edo egiteko aukera.

Lan poltsaren gestioa azkenean lortutako puntuazio globalaren hurrenkerari jarraituta egingo da. Hurrenkeraren arabera lehentasunak ezarriko dira. Barne deialdian onartutako hautagaiek lehentasuna izango dute besteen aurretik.

Hautagai batek lehenengo lan eskaintzari uko eginez gero, beste 2 aldiz gehiago deitu ahal izango diote. Beraz, hirugarren deiarri uko egiten badiu, lan poltsatik kanpo geldituko da.

Lan poltsa bi urtetarako izango da, behin betiko zerrendak argitaratzen diren egunetik hasita.

Halere, arrazoi operatiboak direla eta, lan poltsak beste bi urtez luzatu ahal izango dira.

Osatu den Lan Poltsan egotearen ondorioz Donostiako Trambia Konpainia SAUn lanean hasten badira, 2 hilabeteko probaldia egin beharko dute. Probaldiak irauten duen bitartean, bai langileak bai Enpresak proba egiteari edo kontratua ez berritzeari uko egin diezaioke, hurrenez hurren, aurrez jakinarazi gabe. Hori gertatzen bada, aldeetako batek ere ez du kalte-ordainerako eskubiderik, eta langileak lan egindako egunei dagokiena baino ez du kobratuko. Dena dela, unean-unean Donostiako Trambia Konpainia SAUn kontratazioari eta jardueraren balorazioari buruz indarrean dauden arauen menpe egongo dira, kontratazio modalitatea edozein dela ere.

HAMAIKAGARRENA.- DATUAK ARGITARATZEA.

Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko Lege Organikoak (aurrerantzean LOPD legea) ezarritakoaren arabera, hautagaiei jakinarazten zaie deialdi honen helburu den hautaketa prozesuen baitan ematen dituzten Datu Pertsonalak "Giza Baliabideak" izeneko fitxategi batean sartuko dira. Fitxategia DTKren titularitatepekoa izango da eta Datuen Babeserako Espainiako Agentzian behar bezala inskribatuta egongo da, eta hautaketa prozesuan hautagai gisa izango duten partaidetza kudeatzeko erabiliko da eta, hala badagokio, dagokien lan poltsan sartzeko izapideak egiteko ere bai.

Galdetegietan hala adierazten denean, eskatutako datu pertsonalei buruzko informazioa derrigor eman beharko da eta datu horiek eman ezean edo oker emanez gero, DTK-k ezin izango du eskabidea kudeatu.

Datu pertsonaletan aldaketarik gertatuz gero, datuen titularrak fitxategiaren arduradunari jakinarazi egin beharko dio, eta titularra izango da beti unean-unean ematen dituen datuen egiazkotasunaz eta zuzentasunaz arduratuko dena. Hirugarrenen datuak emanez gero, interesdunak adierazi egingo du datu horien titularrek jakinarazpenerako berariaz emandako baimena baduela.

Datuak eskuratu, zuzendu, baliogabetu edo aurkatzeko eskubideez baliatu nahi izanez gero, hautagaiak idatzi bat bidali beharko du ondoko helbidera, LOPD legean aurreikusitako moduan eta baldintzetan: Donostiako Tranbia Konpainia, SAU. Fernando Sasian kalea, 7. 20015-Donostia (Gipuzkoa).

Era berean, hautaketa prozesuan sartzeko eskabidearen galdetegia aurkeztuta, hautagaiak onartu egiten ditu deialdia arautzen duten Baldintza Orokorrak eta, horrenbestez, DTKri baimena ematen dio berariaz bere datuak jakinarazteko edo lagatzeko, deialdian ezarritako baldintzetan argitara emanda (hau da, Donostiako Tranbia Konpainia SAUren web orrian eta bere bulegoetako iragarki taulan zerrendak eta emaitzak argitaratzea).

Bere egoera pertsonal zehatzari lotuta, interesdunak bere datuak argitaratzearen aurka egoteko moduko funtsezko eta legezko arrazoiak baditu DTKri jakinarazi beharko dio, Hautaketa Batzordeak bere kasua aztertu eta baloratu dezan, eta dagokion erabakia har dezan.

Donostia-San Sebastian, 2017ko uztailaren 9a